

Txostena

Informe

EAEko Udal Entitateen Kontuak

Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV

2019





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK	5
AZTERTUTAKO RATIOAK.....	7
I. SARRERA.....	11
II. ONDORIOAK.....	14
II.1 UDALEN KONTUAK	14
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK	17
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK 2019/12/31N.....	20
III.1 UDAL ADIERAZLEAK	20
III.1.1 Finantza adierazleak	21
III.1.2 Aurrekontuaren adierazleak.....	29
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK	39
III.2.1 Finantza adierazleak	39
III.2.2 Aurrekontuaren adierazleak.....	42

ERANTSITAKO LIKIDAZIOAK

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ERANSKINAK	47
A.1 KANPO KONTROLA DUEN ENTITATEAK	47
A.2 LANGILEEN GASTUAK	48
A.2.1 Udalak	48
A.2.2 Udalaz gaindiko entitateak	49
A.3 KONTU OROKORREN AZTERKETAN HUTSAK	50
A.3.1 Udalak	50
A.3.2 Udalaz gaindiko entitateak	58
ALEGAZIOAK	61

EKONOMIAREN ETA FINANTZAREN INFORMAZIOA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK, SOZietate PUBLIKOAK
ETA FUNDAZIOAK
2. AURREKONTU-LIKIDAZIOEN ETA PLANTILLAREN LABURPENA
3. FINANTZA RATIOAK
4. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS Y DEFINICIONES	67
RATIOS ANALIZADOS.....	69
I. INTRODUCCIÓN.....	73
II. CONCLUSIONES	76
II.1 CUENTAS MUNICIPALES	76
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES	79
III. RATIOS E INDICADORES A 31/12/2019	82
III.1 INDICADORES MUNICIPALES	82
III.1.1 Indicadores Financieros.....	83
III.1.2 Indicadores Presupuestarios.....	91
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES.....	101
III.2.1 Indicadores Financieros.....	101
III.2.2 Indicadores Presupuestarios.....	104

LIQUIDACIONES AGREGADAS

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ANEXOS	109
A.1 ENTIDADES CON CONTROL EXTERNO	109
A.2 GASTOS DE PERSONAL.....	110
A.2.1 Ayuntamientos.....	110
A.2.2 Entidades Supramunicipales	111
A.3 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES.....	112
A.3.1 Ayuntamientos.....	112
A.3.2 Entidades Supramunicipales	120
ALEGACIONES	123

INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. ORGANISMOS AUTÓNOMOS, ENTIDADES PÚBLICAS, SOCIEDADES PÚBLICAS Y FUNDACIONES
2. RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS Y PLANTILLA
3. RATIOS FINANCIEROS
4. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES MAGNITUDES

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 18a
Vitoria-Gasteiz, a 18 de noviembre de 2021



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LH/LLHH	Lurralde Historikoa / Lurralde historikoak.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AZTERTUTAKO RATIOAK

FINANTZAREN ETA ONDAREAREN ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia	Funts likidoak / Pasibo arrunta
Likidezia epe laburrera	(Funts likidoak + Kobratzeko eskubideak) / Pasibo arrunta
Likidezia orokorra	Aktibo arrunta / Pasibo arrunta
Zorpetzea biztanleko	(Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta) / Biztanle kopurua
Zorpetzea	(Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta) / (Pasibo arrunta + Pasibo ez arrunta + Ondare garbia).
Zorpetze maila	Pasibo arrunta / Pasibo ez arrunta
Cash-Flow	(Pasibo ez arrunta + Pasibo arrunta) / Eskudiruzko fluxu garbiak, eskudiruzko fluxuen egoera kudeatzeko jardueren ondorioz.
Ondare eta ekonomia-emaitzaren kontuaren ratioak	
Sarrerren egitura:	Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Jasotako dirulaguntza eta transferentziak / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Salmentak eta zerbitzu-ematea / Kudeaketa arrunteko sarrerak. Kudeaketa arrunteko gainerako sarrerak / Kudeaketa arrunteko sarrerak.
Gastuen egitura:	Langileria-gastuak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Emandako dirulaguntza eta transferentziak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Hornidurak / Kudeaketa arrunteko gastuak. Kudeaketa arrunteko gainerako gastuak / Kudeaketa arrunteko gastuak.
Gastu arrunten estaldura:	Kudeaketa arrunteko gastuak / Kudeaketa arrunteko sarrerak.

FINANTZA ETA AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

Zorpetze finantzarioa	
diru-sarrera arrunten gainean	[Pasibo arrunta (finantzarioa) + Pasibo ez arrunta (finantzarioa)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Finantza zorra amortizatzeko zenbatetsitako epea	[Pasibo arrunta (finantzarioa) + Pasibo ez arrunta (finantzarioa)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARREREN AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

Sarrerren aurrekontuaren egikaritza	Eskubide aitortu garbiak / Sarrerren behin betiko aurreikuspenak.
Autonomia	Eskubide aitortu garbiak (1etik 3ra, 5, 6 eta 8 kap. + jasotako transferentziak) / Eskubide aitortu garbiak.
Autonomia fiskala	Zerga izaerako sarrerren eskubide aitortu garbiak / Eskubide aitortu garbiak.
Jasotako diru-laguntzekiko mendekotasun indizea	Eskubide aitortu garbiak (4 eta 7 kap.) / Eskubide aitortu garbiak.
Kobrantzak gauzatzea	Diru-bilketa garbia / Eskubide aitortu garbiak
Kobranta osorako batez besteko aldia 1etik 3rako kap.	[Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 3rako kap.)] *365.

GASTUEN AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

Gastuen aurrekontuaren egikaritza	Obligazio aitortu garbiak / Gastuen kreditu behin betikoak.
Langileria-gastuen indizea	Langileria-gastuak / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Inbertsio-ahalegina	Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Obligazio aitortu garbiak.
Ekitaldiko finantza karga	Obligazio aitortu garbiak (3 eta 9 kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.)
Gastua biztanleko	Obligazio aitortu garbiak / Biztanle kopurua.
Biztanleko inbertsioa	Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Biztanle kopurua.
Ordainketak gauzatzea	Gauzatutako ordainketak / Obligazio aitortu garbiak.
2. eta 6. kap. ordaink. batez best. epea osotara	[Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Obligazio aitortu garbiak (2. eta 6. kap.)] * 365.

AURREKONTUKO EMAITZAREN ETA DIRUZAINZA GELDIKINAREN ADIERAZLEAK

Aurrezki gordin ez finantzarioa biztanleko	[Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) / Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.)] / Biztanle kopurua
Aurrezki garbia biztanleko	[Aurrezki gordin ez finantzarioa – Finantza karga (gastuen 3 eta 9 kap.)] / Biztanle kopurua
Aurrezki gordinaren indizea	[Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki gordinaren indize ez finantzarioa	[Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
Biztanleko superabita edo defizita	Aurrekontu emaitza doitua / biztanle kopurua.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zalantzazko kobragarritasuna

duten zordunen indizea

Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak / kobratzeko dauden
zordunak.

EKITALDI ITXIETAKO AURREKONTUEN ADIERAZLEAK

Ekitaldi itxietako kobrantzak
gauzatzea

Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta
baliogabetzeak)

Ekitaldi itxietako ordainketak
gauzatzea

Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta
baliogabetzeak)





I. SARRERA

HKEE honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2019ko kontu orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan erregulazio orokor oinarritzkoa osatzen dute Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak.

EAEren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek onartutako indarreko arautegia da: 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA. Foru dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arau hauek lurralde historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra jaso dira. Hiru lurralde historikoetako toki entitateen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEen 2019ko ekitaldian zeuden 252 udal administrazioei eta udalaz gaindiko 62 entitateei soil-soilik dagokie (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak, sozietate publikoak, entitate publikoak eta mendeko fundazioak). Hona hemen horien xehakapena:

- 17 partzuergo
- 34 mankomunitate
- 6 kuadrilla
- 5 partzoneria

2019ko ekitaldian baja izan zen Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoa.

EAEren udal multzoaren kontu orokorrak eta lurralde historikoen arabera banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren arabera banaketa likidazioak gehitzetik eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 240 udalek (% 93,24) eta udalaz gaindiko 54 entitatek iritsarazi dizkigutenak (% 87,10).

Ikuskatutako kontuak aurkeztu dituzten entitateak 21 udal eta udalaz gaindiko 11 entitate dira eta HKEEk, gainera, 10 udal eta udalaz gaindiko 2 entitate fiskalizatu ditu (ikus A.1).

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 81 erakunde autonomo, 99 udal sozietate publiko eta 4 enpresa-erakunde publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehakapena honako lotunean dago jasoa:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	ENTITATE KOPURUA		
	ERAKUNDE AUTONOMOAK	SOZETATE PUBLIKOAK	ENPRESA ERAK. PUBLIKOAK
Udaletakoak:			
Araba	10	11	-
Bizkaia.....	43	37	2
Gipuzkoa.....	26	40	2
Udalaz gaindiko entitateak:			
Partzuergoak	-	4	-
Mankomunitateak	2	7	-
Kuadrillak	-	-	-
Partzoneriak	-	-	-
EAE GUZTIRA	81	99	4

Gainera, 22 fundaziotan parte hartzen dutela baieztatu dute 21 udalek eta udalaz gaindiko entitate batek.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.189.445eko biztanleria hartu da aintzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 240 udaletan 2019ko urtarrilaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 19/1/1
GERUZA		
> 50.000.....	6	1.027.260
20.001 - 50.000	13	407.437
10.001 - 20.000	25	359.261
5.001 - 10.000	27	185.583
1.001- 5.000	74	166.347
< 1.001.....	95	43.557
EAE GUZTIRA	240	2.189.445
ARABA	48	327.477
BIZKAIA	110	1.143.428
GIPUZKOA	82	718.540

Udalaz gaindiko entitateetan zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren entitateetan:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

JARDUERA	ENTITATE KOPURUA	BIZTANLERIA ARTATUA
1. Ura eta saneamendua	10	1.901.951
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	9	381.323
3. Hiri hondakin solidoak.....	9	1.557.669
4. Gizarte ongizatea.....	10	254.617
5. Arabako kuadrillak	5	76.876
6. Euskara eta lanerako prestak sustapena eta irakaskuntza	6	321.209
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	3	50.469
8. Suteak itzaltzea.....	1	25.309
9. Garraioa.....	1	752.882

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2019ko ekitaldiko kontu orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokorren atal diren balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa egin da eta ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.
- Udal eta udalaz gaindiko erakunde guztien balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu Orokorraren informazioaren eduki kualitatiboan eragina duten akatsak.
- Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketa moldeari erreferentzia egiten dietenak.

Txostenaren datu ekonomikoak milako eurotan daude emanak eta dezimalik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketara.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. ONDORIOAK

II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Aduna, Dulantzi, Amezketeta, Añana, Asteasu, Belauntza, Kanpezu, Ea, Gaintza, Ondarroa, Segura eta Zeraingo udalek urratu egin dute obligazio hori (ikus A.3.1).

Segidan azalduko ditugun ondorioak EAEko 240 udalek igorritako datuetatik eskuratu ditugu; horietatik guztietatik, 4ek aurrekontuen likidazioa soilik igorri dute (ikus A.3.1). Datu horien arabera, EAEko Udalen % 95,24k aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 240 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu 39 udaletan ez dela batere akatsik azaleratu, aztertutako guztien gainean % 16,25; horietatik 5 Arabako LHkoak dira; 11 Bizkaiko LHkoak eta 23, Gipuzkoako LHkoak.

Onespen epeak

- Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. 106 udalek aurrekontuak 2019ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten eta 3k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan. 240 udaletatik 117k soilik (% 48,75) onartu dituzte ekitaldia hasi aurretik.

Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2019/01/01 baino lehenago	117	% 48,75
2019ko 1. hiruhilekoan	84	% 35,00
2019ko 2. hiruhilekoan	22	% 9,17
2019ko 2. seihilekoan	3	% 1,25
Aurrekontu luzatua	14	% 5,83

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 42 udaletan (% 17,50) aurrez aipatutako data baino lehenago onartu da eta 198 udaletan (% 82,50) 2020ko apirilaren 1a baino lehenago onartu dute.

Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2020/04/01 baino lehenago	198	% 82,50
2020/04/01 eta 2020/07/31 bitartean	40	% 16,67
2020/08/01 eta 20/12/31 bitartean	2	% 0,83

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.4 artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31n jartzen du Entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 98 udalek arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute; 9 udaletan ez dago jasota onetsi denik ere, eta 240 udaletatik 133tan (% 55,42) agindutako epean onartu da.

Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2020/08/01 baino lehenago	133	% 55,42
2020/08/01 eta 2020/12/31 bitartean	90	% 37,50
2020/01/01 baino beranduago	8	% 3,33
Ez dago jasoa onartu denik	9	% 3,75

Kontu Orokorraren eta Aurrekontuko Likidazioaren eduki formala

Kontu Orokorra osatzen dute: balantzeak, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontuak, ondare garbian aldaketen egoerak, eskudiruzko fluxuen egoerak, aurrekontuaren likidazio egoerak eta memoriak; eta Udalak ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuko gaietan gauzatu duen kudeaketa erakusten du. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru lurralde historikoen foru arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AKATSAK	UDAL KOPURUA
Ez dute barne hartu:	
Balantzea.....	4
Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua.....	4
Ondare garbian aldaketen egoera.....	19
Eskudiruzko fluxuen egoera.....	10
Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.....	1
Oroitidazkia.....	13
Diru-kontaketa aktak.....	1
Banku-ohar edo -ziurtagiriak eta kontziliazioak.....	42
Aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazioaren egoera-orria.....	22
Diruzaintza-kontua.....	19
Udal zorrari buruzko informazioa.....	5

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan gauzatzen den ondare-kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 67 udalek ez dituzte Balantzean edo ekonomia eta ondarearen emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen eta horietatik 58, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Diruzaintza-kontua aitortu duten 221 udaletatik 9k deskoadreak dituzte, kontuen mugimenduak ez datozelako bat egikaritzarekin.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	UDAL KOPURUA
AURREKONTUKO AKATSAK	
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza.....	2
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak.....	2
Oker kalkulaturako diruzaintza geldikina.....	1
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako.....	4
24 hilabetetik gorako antzintasuna duten zordunak, kobragarritasun-azterketarik eta diruzaintza geldikinaren murrizketarik gabe.....	3
ONDAREKO AKATSAK:	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin.....	8
Zalantzako kobragarritasuneko zuzkidura, balantzean jaso gabea.....	1
Balantzean kaudimen-gabeziarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa.....	2

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

17/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten udalaz gaindiko 3 entitatek eta finantzatu gabe dute 19/12/31n, lurralde historiko bakoitzeko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 artikulua urratuz.

II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Honako entitate hauek ez dituzte 2019ko ekitaldiko kontuak bidali, eta ez dute bete LH bakoitzaren Aurrekontuen Foru Arauetako 63.5 artikulua: Kuartangoko Ur Partzuergoa, Elgeako Mendilerroko eta Lautadako Urkidetza, Iruña Okako Ur Partzuergoa, Haranako Ur Partzuergoa, La Lomba Ur Partzuergoa, Kanpezuko eta Arabako Mendialdeko Kuadrila, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra eta Gipuzkoako Partzoneria Txikia (ikus A.3.2).

Hemen azalduko ditugun ondorioak EAEko udalaz gaindiko 54 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu; horietatik 3k ez dute Kontu Orokorari buruzko dokumentazioa igorri (ikus A.3.2). Horrek esan nahi du EAEko udalaz gaindiko entitateen % 87,10ek aitortzen dizkiola kontuak Epaitegi honi.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean azaleratu diren akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien udalaz gaindiko 12 entitatetan (aztertutako udalerrri guztien % 22,22) ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 1 Arabako Lurralde Historikoan dago, 4 Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 7 Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. 21 entitatek aurrekontuak 2019ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten eta 54 entitateetatik 28k baizik ez zituzten ekitaldia hasi aurretik onartu, % 51,85ek, alegia.

Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako entitate kopurua:

AURREKONTUAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2019/01/01 baino lehenago.....	28	% 51,85
2019ko 1. hiruhilekoan.....	16	% 29,63
2019ko 2. hiruhilekoan.....	5	% 9,26
Aurrekontu luzatua.....	5	% 9,26

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 11 entitatetan, % 20,37, likidazioak aurrekontu-araudiak agintzen duen data ondoren onartu dira. 43 entitatek, % 79,63, 2020ko apirilaren 1a baino lehenago onartu dute.

Hona hemen, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko digun taula:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2020/04/01 baino lehenago.....	43	% 79,63
2020/04/01 eta 2020/07/31 bitartean.....	10	% 18,52
2020/08/01 eta 2020/12/31 bitartean.....	1	% 1,85,

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.4 artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31n jartzen du Entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 17 entitatek arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 8 entitatetan ez dago jasota onetsi denik ere.

Onespen aldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2020/01/01 baino lehenago.....	29	% 53,70
2020/08/01 eta 2020/12/31 bitartean.....	14	% 25,93
2021/01/01 baino beranduago	3	% 5,56
Ez dago jasoa onartu denik.....	8	% 14,81

Kontu Orokorraren eta Likidazioaren eduki formala

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	ENTITATE KOPURUA
Ez dute barne hartu:	
Balantzea.....	3
Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua.....	3
Ondare garbian aldaketen egoera.....	6
Eskudiruzko fluxuen egoera	5
Oroitidazkia	6
Banku-ohar edo -ziurtagiriak eta kontziliazioak	11
Aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazioaren egoera-orria	7
Diruzaintza-kontua	3
Udal zorrari buruzko informazioa.....	2

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- 15 entitatek ez dituzte balantzean edo ekonomiaren eta ondarearen emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak jaso; akats hori zuzendu egin behar da finantza egoerek ondare egoera zuzen isla dezaten.
- Ez dago udalaz gaindiko entitate bakar bat ere, 24 hilabetetik gorako antzintasuneko zorrak izanik, kobragarritasunaren gaineko azterlanik egin ez duenik eta diruzaintza geldikinetik kopururik murriztu ez duenik.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ENTITATE KOPURUA	
AURREKONTUKO AKATSAK	
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza	1
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	5
Oker kalkulaturako diruzaintza geldikina	1
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	5
ONDAREKO AKATSAK:	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	1

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

Udalaz gaindiko entitate batek 17/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuen eta 19/12/31n finantzatu gabe dauka, 10/2003 Foru Arauaren 49.4 artikulua urratuz.



III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK 2019/12/31N

Txosten honetan islatzen diren adierazleak kalkulatzeko Toki Korporazioen Kontu Orokorreko adierazleak baliatu dira, Kontuen Epaitegiko tokiko esparrua Koordinatzeko Batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek erabaki bidez 2013ko maiatzaren 7an hartu zituztenak; horiek, gerora, toki administraziorako kontabilitateko jarraibide berrietara egokitu dira, eta 2019ko ekitaldiko urteko kontuei ezargarriak zaizkie.

III.1 UDAL ADIERAZLEAK

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 240 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

III.1.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia, epe laburreko likidezia eta likidezia orokorra

Ratio hauek erakusten dute udalek zorrean dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Biztanleria geruzaren arabera batez besteko balioak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BEREHALAKO LIKIDEZIA	EPE MOTZ. LIKIDEZIA	LIKIDEZIA OROKORRA
ARABA				
>50.000	1	% 60,67	% 115,82	% 115,82
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 315,71	% 475,19	% 475,19
5.001-10.000	1	% 29,80	% 126,63	% 126,63
1.001-5.000	15	% 461,91	% 567,43	% 567,43
<1.001	29	% 486,85	% 601,83	% 601,83
ARABA BATEZ BESTE	48	% 98,18	% 161,58	% 161,58
BIZKAIA				
>50.000	3	% 143,76	% 272,82	% 272,82
20.001-50.000	8	% 310,55	% 355,24	% 355,24
10.001-20.000	9	% 219,06	% 279,87	% 279,87
5.001-10.000	13	% 302,45	% 352,58	% 352,59
1.001-5.000	39	% 394,05	% 444,12	% 454,11
<1.001	38	% 442,31	% 488,82	% 544,50
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 229,06	% 318,84	% 321,12
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 93,70	% 404,16	% 404,16
20.001-50.000	5	% 176,71	% 340,14	% 341,24
10.001-20.000	14	% 414,07	% 529,61	% 531,87
5.001-10.000	13	% 317,32	% 482,29	% 482,43
1.001-5.000	20	% 293,49	% 408,57	% 408,74
<1.001	28	% 432,85	% 648,64	% 648,68
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 248,65	% 442,34	% 443,24
EAE				
>50.000	6	% 98,32	% 220,22	% 220,22
20.001-50.000	13	% 259,02	% 349,42	% 349,80
10.001-20.000	25	% 343,33	% 445,64	% 446,97
5.001-10.000	27	% 300,04	% 406,01	% 406,08
1.001-5.000	74	% 385,34	% 457,48	% 463,87
<1.001	95	% 454,72	% 562,23	% 587,01
EAE BATEZ BESTE	240	% 196,07	% 305,90	% 307,15



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zorpetzea

Zorpetze-mailen baloraziorako biztanle-geruzaren arabera kalkulatu dira biztanleko zorpetze-adierazleak, finantza zorraren maila sarrera arruntei dagokienez eta 2019/12/31ko finantza zorra amortizatzeko balioetsitako aldia.

GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO ZORPETZEA (*)	FINANTZ. ZORRA SARR.ARR.GAIN.	FINANTZ. ZORRA AMORT. BALIOTS. EPEA (**)
ARABA				
>50.000	1	787	% 23,40	3
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	222	% 0,51	-
5.001-10.000	1	1.063	% 66,39	3
1.001-5.000	15	288	% 9,30	-
<1.001	29	390	% 9,41	-
ARABA BATEZ BESTE	48	682	% 20,48	2
BIZKAIA				
>50.000	3	522	% 1,88	-
20.001-50.000	8	244	% 7,67	-
10.001-20.000	9	255	% 8,73	-
5.001-10.000	13	254	% 6,25	-
1.001-5.000	39	342	% 6,16	-
<1.001	38	297	% 2,32	-
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	383	% 4,54	-
GIPUZKOA				
>50.000	2	596	% 27,80	2
20.001-50.000	5	481	% 14,28	1
10.001-20.000	14	463	% 15,61	1
5.001-10.000	13	330	% 8,38	-
1.001-5.000	20	365	% 15,34	1
<1.001	28	379	% 10,30	-
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	489	% 18,97	1
EAE				
>50.000	6	605	% 13,38	1
20.001-50.000	13	321	% 9,98	1
10.001-20.000	25	365	% 12,01	1
5.001-10.000	27	311	% 9,01	1
1.001-5.000	74	339	% 9,07	-
<1.001	95	346	% 6,40	-
EAE BATEZ BESTE	240	462	% 11,77	1

(*) Euro/biztanleko.

(**) Ekitaldi kopurua.

EAEren batez besteko zorra biztanleko 462 euro da. 2 udalek 2019/12/31n biztanleko zorra batez bestekoa baino nabarmen handiagoa dute (1.267 eta 1.744 euro bitartean biztanleko).



Finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epeak adierazten du finantza zorra zenbat ekitalditan amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. 2019ko ekitaldian toki entitateen multzoaren sarrera arrunt guztien gaineko finantza zorraren proportzioa % 11,77koa da; gastu arruntak deduzituz gero, ekitaldi bateko batez besteko epea beharko litzateke finantza zorra osotasunean kitatzeko sarrera arrunten soberakinaren bidez. Ratio honen banako azterketan, 15 udaletan finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epea 2 urtetik gorakoa da (batez bestekoa baino % 150 epe handiagoa) eta horietatik batean epea 5 urtetik gorakoa da.

Honako taula honetan zorpetzearen adierazlea kalkulatzen da; adierazle honek neurtzen du zein lotura dagoen erakundeak hirugarrenen aurrean bere gain hartzen duen pasiboaren eta erakundearen finantzaketa-iturri guztien (baliabide propioak eta besteenak) artean. Zorpetze-erlazioa zutabeak neurtzen du pasibo arruntaren eta ez arruntaren arteko zatidura.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GERUZA	UDAL KOP.	ZORPETZEA	ZORPETZE ERLAZIOA
ARABA			
>50.000.....	1	% 16,66	% 184,97
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 4,10	% 2.298,86
5.001-10.000.....	1	% 13,04	% 29,56
1.001-5.000.....	15	% 3,51	% 295,77
<1.001.....	29	% 4,75	% 191,20
ARABA BATEZ BESTE	48	% 12,91	% 186,92
BIZKAIA			
>50.000.....	3	% 9,04	% 67,77
20.001-50.000.....	8	% 6,46	% 172,72
10.001-20.000.....	9	% 5,06	% 146,03
5.001-10.000.....	13	% 3,13	% 264,67
1.001-5.000.....	39	% 2,78	% 294,53
<1.001.....	38	% 1,69	% 499,88
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 6,25	% 100,92
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 22,40	% 38,47
20.001-50.000.....	5	% 10,88	% 71,46
10.001-20.000.....	14	% 7,65	% 75,24
5.001-10.000.....	13	% 5,42	% 146,31
1.001-5.000.....	20	% 7,77	% 79,17
<1.001.....	28	% 2,19	% 158,05
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 10,51	% 60,98
EAE			
>50.000.....	6	% 12,71	% 82,46
20.001-50.000.....	13	% 8,06	% 111,75
10.001-20.000.....	25	% 6,50	% 99,36
5.001-10.000.....	27	% 4,33	% 159,72
1.001-5.000.....	74	% 3,56	% 191,42
<1.001.....	95	% 2,38	% 247,32
EAE BATEZ BESTE	240	% 8,38	% 96,98

Toki entitateen multzoari dagokionez, zorpetzeak pasibo guztiaren gainean % 8,38 egiten du, nahiz tamaina handiagoko udaletan proportzioa % 12,71ra igo zen; horren ondorioz, tamaina txikiagoa duten udalen aldean kanpoko finantzaketarekiko mendekotasun handiagoa daukate; bada, 1.000 biztanletik beherako udaletan ehunekoa % 2,38koa da.

EAEko Udalek foru aldundiei itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 7 milioi euro dituzte itzultzeko; guztiak ere Arabako udalerriei dagozkie.



Cash-Flow-a

Honako taula honetan erakusten da kudeaketa jarduerengatiko eskudiruzko fluxu garbiek zein neurritan estaltzen duten erakundearen pasiboa, biztanleria geruzaren arabera bereizia.

GERUZA	UDAL KOP.	CASH-FLOW-A
ARABA		
>50.000.....	1	% 568,90
20.001-50.000	-	-
10.001-20.000	2	% 128,65
5.001-10.000	1	% 193,53
1.001-5.000	15	% 1,30
<1.001.....	29	% 82,10
ARABA BATEZ BESTE	48	% 32,76
BIZKAIA		
>50.000.....	3	% 228,41
20.001-50.000	8	% 135,25
10.001-20.000	9	% 132,32
5.001-10.000	13	% 108,20
1.001-5.000	39	% 105,95
<1.001.....	38	% 57,72
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 169,59
GIPUZKOA		
>50.000.....	2	% 282,96
20.001-50.000	5	% 186,27
10.001-20.000	14	% 123,02
5.001-10.000	13	% 135,46
1.001-5.000	20	% 113,16
<1.001.....	28	% 48,49
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 172,49
EAE		
>50.000.....	6	% 299,41
20.001-50.000	13	% 156,09
10.001-20.000	25	% 125,62
5.001-10.000	27	% 125,74
1.001-5.000	74	% 8,32
<1.001.....	95	% 61,07
EAE BATEZ BESTE	240	% 88,51



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ekonomia-ondarearen emaitzaren kontuaren ratioak

Sarreraren egitura:

Honako ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko sarrera guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	ZERGA ETA HIRIGINT. SARRERAK	JASOT. DIRULAG. ETA TRANSF.	SALMEN. ETA ZERB. EMAKIDA	KUD. ARR. GAIN. SARR.
ARABA					
>50.000	1	% 35,22	% 57,60	% 4,98	% 2,20
20.001-50.000	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 40,51	% 54,80	% 0,36	% 4,33
5.001-10.000	1	% 43,65	% 54,56	% 0,37	% 1,42
1.001-5.000	15	% 44,66	% 51,36	% 1,03	% 2,95
<1.001	29	% 40,40	% 52,83	% 1,32	% 5,45
ARABA BATEZ BESTE	48	% 36,84	% 56,56	% 4,03	% 2,57
BIZKAIA					
>50.000	3	% 34,26	% 60,37	% 0,30	% 5,07
20.001-50.000	8	% 33,86	% 63,38	% 1,32	% 1,44
10.001-20.000	9	% 36,04	% 61,82	% 0,33	% 1,81
5.001-10.000	13	% 36,21	% 59,70	% 1,50	% 2,59
1.001-5.000	39	% 40,93	% 55,31	% 0,36	% 3,40
<1.001	38	% 23,47	% 71,01	% 0,72	% 4,80
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 34,86	% 60,78	% 0,60	% 3,76
GIPUZKOA					
>50.000	2	% 48,38	% 48,00	% 0,29	% 3,33
20.001-50.000	5	% 39,97	% 57,37	% 0,56	% 2,10
10.001-20.000	14	% 38,90	% 58,22	% 0,23	% 2,65
5.001-10.000	13	% 39,45	% 56,59	% 1,93	% 2,03
1.001-5.000	20	% 35,06	% 62,56	% 0,37	% 2,01
<1.001	28	% 34,73	% 58,85	% 0,16	% 6,26
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 41,94	% 54,81	% 0,53	% 2,72
EAE					
>50.000	6	% 37,47	% 57,09	% 1,43	% 4,01
20.001-50.000	13	% 36,29	% 60,98	% 1,02	% 1,71
10.001-20.000	25	% 38,11	% 59,11	% 0,27	% 2,51
5.001-10.000	27	% 37,99	% 58,05	% 1,67	% 2,29
1.001-5.000	74	% 40,05	% 56,51	% 0,48	% 2,96
<1.001	95	% 31,41	% 62,47	% 0,76	% 5,36
EAE BATEZ BESTE	240	% 37,49	% 58,17	% 1,12	% 3,22



Gastuen egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko gastu guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	LANGILERIA GASTUAK	EMAND. DIRULAG. ETA TRANSF.	HORNID.	GAINER. GTU. ARRUNTAK
ARABA					
>50.000	1	% 44,81	% 12,64	-	% 42,55
20.001-50.000	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 40,76	% 10,20	-	% 49,04
5.001-10.000	1	% 22,78	% 5,31	-	% 71,91
1.001-5.000	15	% 24,52	% 14,49	-	% 60,99
<1.001	29	% 23,83	% 16,73	-	% 59,44
ARABA BATEZ BESTE	48	% 41,50	% 12,69	-	% 45,81
BIZKAIA					
>50.000	3	% 30,76	% 24,31	% 5,10	% 39,83
20.001-50.000	8	% 35,97	% 16,08	% 5,49	% 42,46
10.001-20.000	9	% 34,85	% 19,99	% 1,79	% 43,37
5.001-10.000	13	% 31,87	% 14,86	% 5,55	% 47,72
1.001-5.000	39	% 29,06	% 14,47	-	% 56,47
<1.001	38	% 37,28	% 13,98	-	% 48,74
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 32,15	% 20,64	% 4,37	% 42,84
GIPUZKOA					
>50.000	2	% 27,11	% 35,20	-	% 37,69
20.001-50.000	5	% 37,84	% 18,46	% 0,04	% 43,66
10.001-20.000	14	% 33,15	% 17,85	% 0,44	% 48,56
5.001-10.000	13	% 30,04	% 14,19	% 0,16	% 55,61
1.001-5.000	20	% 33,63	% 15,74	-	% 50,63
<1.001	28	% 36,94	% 13,64	% 1,22	% 48,20
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 31,71	% 23,10	% 0,17	% 45,02
EAE					
>50.000	6	% 33,51	% 23,73	% 2,70	% 40,06
20.001-50.000	13	% 36,74	% 17,06	% 3,25	% 42,95
10.001-20.000	25	% 34,33	% 17,85	% 0,82	% 47,00
5.001-10.000	27	% 30,72	% 14,27	% 2,76	% 52,25
1.001-5.000	74	% 29,42	% 14,81	-	% 55,77
<1.001	95	% 32,55	% 14,85	% 0,29	% 52,31
EAE BATEZ BESTE	240	% 33,56	% 20,13	% 2,24	% 44,07



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastu arrunten estaldura:

Adierazle honek kudeaketa arrunteko gastuen estaldura maila erakusten du, kudeaketa arrunteko sarrerei dagokienez.

GERUZA	UDAL KOP.	GTU. ARRUNTEN ESTALDURA
ARABA		
>50.000	1	% 96,33
20.001-50.000	-	-
10.001-20.000	2	% 97,08
5.001-10.000	1	% 89,05
1.001-5.000	15	% 91,74
<1.001	29	% 95,96
ARABA BATEZ BESTE	48	% 95,86
BIZKAIA		
>50.000	3	% 89,36
20.001-50.000	8	% 87,57
10.001-20.000	9	% 87,89
5.001-10.000	13	% 92,10
1.001-5.000	39	% 85,35
<1.001	38	% 78,49
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 88,53
GIPUZKOA		
>50.000	2	% 95,13
20.001-50.000	5	% 92,04
10.001-20.000	14	% 93,60
5.001-10.000	13	% 94,13
1.001-5.000	20	% 87,26
<1.001	28	% 78,59
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 93,19
EAE		
>50.000	6	% 92,26
20.001-50.000	13	% 89,35
10.001-20.000	25	% 92,04
5.001-10.000	27	% 93,00
1.001-5.000	74	% 86,96
<1.001	95	% 83,78
EAE BATEZ BESTE	240	% 91,21



III.1.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

Sarrerren aurrekontuaren adierazleak

Atal honetan erakusten da toki entitateek 2019ko sarrerren aurrekontuan izan duten egikaritza, honako hauek bereiziaz: behin betiko aurreikuspenen egikaritzako adierazleak; eskubide aitortuen kobrantzetan egikaritza-maila, eta 1etik 3rako kapituluaren kobrantza osoaren batez besteko aldia, biztanleria-geruzaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	SARREREN AURREKONT. EGIKARITZA	KOBRANTZEN EGIKARITZA	1ETIK 3RAKO KAPITULUEN KOBRANTZA OSOAREN BATEZ B. ALDIA (*)
ARABA				
>50.000	1	% 86,30	% 87,28	71
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 79,16	% 88,50	96
5.001-10.000	1	% 90,96	% 87,70	52
1.001-5.000	15	% 86,18	% 86,06	35
<1.001	29	% 73,11	% 83,90	36
ARABA BATEZ BESTE	48	% 85,07	% 87,12	68
BIZKAIA				
>50.000	3	% 95,66	% 94,04	57
20.001-50.000	8	% 89,18	% 95,38	26
10.001-20.000	9	% 87,32	% 94,34	32
5.001-10.000	13	% 90,96	% 87,70	52
1.001-5.000	39	% 79,18	% 93,75	28
<1.001	38	% 86,62	% 96,33	11
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 89,83	% 94,53	41
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 76,04	% 83,52	48
20.001-50.000	5	% 78,20	% 92,91	31
10.001-20.000	14	% 80,08	% 92,48	38
5.001-10.000	13	% 76,05	% 89,74	38
1.001-5.000	20	% 90,62	% 91,44	33
<1.001	28	% 83,78	% 88,73	12
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 78,25	% 88,61	40
EAE				
>50.000	6	% 87,27	% 89,58	58
20.001-50.000	13	% 85,00	% 94,51	28
10.001-20.000	25	% 82,36	% 92,82	40
5.001-10.000	27	% 76,74	% 92,62	29
1.001-5.000	74	% 83,05	% 91,84	31
<1.001	95	% 81,51	% 90,62	21
EAE BATEZ BESTE	240	% 84,72	% 91,34	45

(*) Egun kopurua.

Toki-entitateen multzoarentzat behin betiko aurreikuspenen egikaritza maila % 84,72 izan zen eta eskubide aitortuen egikaritza maila, berriz, % 91,34.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Sarrerren egikaritzza maila handiena, % 87,27, 50.000 biztanletik gorarako udalei dagokie.

Zerga-sarrerak kobratzeko batez besteko aldia 45 egun izan zen.

Sarrerren aurrekontuaren beste adierazle batzuk

Aurreko atalean jasotako adierazleez gain (egikaritzza maila eta kobrantzarako batez besteko aldia), jasotako dirulaguntzen autonomia eta mendekotasun-indizea erakusten duten adierazleak ere kalkulatu dira eta horrek helburudun xedea duten sarrerren ehunekoa erakusten du.

GERUZA	UDAL KOP.	AUTONOMIA	AUTONOMIA FISKALA	JASOTAKO DIRULAG. MENDEKOTASUN INDIZEA
ARABA				
>50.000	1	% 87,91	% 33,43	% 9,27
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 94,35	% 39,55	% 5,65
5.001-10.000	1	% 80,72	% 37,88	% 19,28
1.001-5.000	15	% 75,69	% 40,55	% 24,31
<1.001	29	% 71,12	% 41,17	% 28,88
ARABA BATEZ BESTE	48	% 86,46	% 34,94	% 11,35
BIZKAIA				
>50.000	3	% 95,15	% 33,03	% 4,85
20.001-50.000	8	% 89,79	% 33,17	% 9,66
10.001-20.000	9	% 92,47	% 34,99	% 6,49
5.001-10.000	13	% 93,14	% 35,07	% 6,43
1.001-5.000	39	% 92,37	% 36,52	% 7,41
<1.001	38	% 88,75	% 20,71	% 11,25
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 93,17	% 33,47	% 6,55
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 92,98	% 36,55	% 3,79
20.001-50.000	5	% 92,41	% 38,80	% 5,79
10.001-20.000	14	% 88,48	% 35,64	% 6,89
5.001-10.000	13	% 88,90	% 36,08	% 9,70
1.001-5.000	20	% 83,15	% 32,42	% 16,06
<1.001	28	% 83,71	% 28,86	% 16,07
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 90,56	% 36,27	% 6,49
EAE				
>50.000	6	% 92,87	% 34,09	% 5,59
20.001-50.000	13	% 90,71	% 35,14	% 8,31
10.001-20.000	25	% 90,30	% 35,71	% 6,66
5.001-10.000	27	% 90,66	% 35,66	% 8,45
1.001-5.000	74	% 87,12	% 36,15	% 12,54
<1.001	95	% 82,26	% 28,89	% 17,68
EAE BATEZ BESTE	240	% 91,25	% 34,67	% 7,25



Autonomia-ratioak erakusten du toki entitateek tokiko eskumenak bideratzeko autonomia osoz balia ditzaketen sarreraren ehunekoa. 2019rako adierazle honen batez besteko emaitza % 91,25 izan zen.

Autonomia fiskalaren ratioak erakusten du izaera fiskaleko sarreraren proportzioa entitatearen sarrera guztien gainean. Adierazle hau udalerriaren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren araberakoa da. 2019ko ekitaldian, batez bestekoa % 34,67 izan zen.

Azkenik, 2019an jasotako dirulaguntzen mendekotasun indizea % 7,25 izan zen toki entitateen multzoari dagokionez.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastuen aurrekontuaren adierazleak

Atal honetan erakusten da toki entitateek 2019ko sarreraren aurrekontuan izan duten egikaritza, honako hauek bereiziaz: behin betiko kredituen egikaritzako adierazleak; obligazio aitortuen egikaritza-maila; eta 2 eta 6 kapituluaren ordainketa osoaren batez besteko epea, biztanleria-geruzaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	GASTUEN AURREKONT. EGIKARITZA	ORDAINKETAK GAUZATZEA	ORDAINK. OSOAREN BATEZ BESTEKO EPEA 2. ETA 6. KAP. (*)
ARABA				
>50.000	1	% 84,55	% 87,64	101
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 76,15	% 92,72	37
5.001-10.000	1	% 89,49	% 93,81	29
1.001-5.000	15	% 71,22	% 91,18	33
<1.001	29	% 64,68	% 90,35	38
ARABA BATEZ BESTE	48	% 81,68	% 88,52	83
BIZKAIA				
>50.000	3	% 91,35	% 90,86	66
20.001-50.000	8	% 83,69	% 92,64	43
10.001-20.000	9	% 82,25	% 91,69	48
5.001-10.000	13	% 79,24	% 93,36	36
1.001-5.000	39	% 74,88	% 92,02	41
<1.001	38	% 81,28	% 94,13	31
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 85,77	% 91,70	53
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 71,67	% 97,36	16
20.001-50.000	5	% 75,85	% 92,52	48
10.001-20.000	14	% 74,24	% 91,93	46
5.001-10.000	13	% 72,89	% 93,30	36
1.001-5.000	20	% 86,09	% 93,10	38
<1.001	28	% 75,89	% 94,61	27
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 73,94	% 94,40	34
EAE				
>50.000	6	% 83,59	% 91,83	61
20.001-50.000	13	% 80,67	% 92,60	45
10.001-20.000	25	% 76,97	% 91,91	46
5.001-10.000	27	% 76,34	% 93,35	36
1.001-5.000	74	% 76,86	% 92,17	39
<1.001	95	% 74,48	% 93,21	32
EAE BATEZ BESTE	240	% 80,67	% 92,15	51

(*) Egun kopurua.

Toki entitateen multzo osoari dagokionez, egikaritza maila % 80,67 izan zen eta obligazio aitortuen betetze-maila % 92,15; batez besteko ordaintzeko aldia, berriz, 51 egunekoa.



Gastuen aurrekontuaren beste adierazle batzuk

Aurreko atalean jasotako adierazleez gain, alderdi jakin batzuen gaineko informazioa ematen duten beste ratio batzuk kalkulatu dira biztanle geruzaren arabera sailkatuak, egikaritutako gastuaren informazioa osatzen laguntzen dutenak; hona hemen:

Euroak/biztanleko						
GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO GASTUA	LANGILE GAST. INDIZEA	BIZTANLEKO INBERTS.	INBERTSIO AHALEGINA	EKITALD. FIN. KARGA
ARABA						
>50.000	1	1.482	% 43,56	99	% 6,66	% 5,28
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	1.256	% 39,25	146	% 11,63	% 0,33
5.001-10.000	1	1.580	% 19,76	468	% 29,64	% 9,66
1.001-5.000	15	1.330	% 23,84	292	% 21,96	% 0,99
<1.001	29	1.335	% 29,33	245	% 18,33	% 2,00
ARABA BATEZ BESTE	48	1.450	% 40,67	137	% 9,48	% 4,46
BIZKAIA						
>50.000	3	1.462	% 28,01	198	% 13,56	% 0,65
20.001-50.000	8	1.222	% 32,17	147	% 12,04	% 2,67
10.001-20.000	9	1.185	% 30,41	159	% 13,43	% 1,86
5.001-10.000	13	1.342	% 29,01	253	% 18,86	% 1,91
1.001-5.000	39	1.442	% 24,94	270	% 18,73	% 1,99
<1.001	38	1.645	% 30,14	422	% 25,64	% 1,29
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	1.363	% 29,02	195	% 14,34	% 1,43
GIPUZKOA						
>50.000	2	1.675	% 27,63	297	% 17,74	% 4,66
20.001-50.000	5	1.437	% 34,39	269	% 18,71	% 2,50
10.001-20.000	14	1.394	% 30,58	253	% 18,16	% 2,47
5.001-10.000	13	1.447	% 27,88	250	% 17,30	% 2,91
1.001-5.000	20	1.335	% 29,33	245	% 18,33	% 3,92
<1.001	28	1.880	% 29,18	624	% 33,21	% 4,21
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	1.509	% 29,75	276	% 18,28	% 3,45
EAE						
>50.000	6	1.519	% 31,53	198	% 13,03	% 2,73
20.001-50.000	13	1.292	% 32,95	187	% 14,46	% 2,61
10.001-20.000	25	1.304	% 31,19	209	% 16,03	% 2,09
5.001-10.000	27	1.397	% 28,20	258	% 18,45	% 2,62
1.001-5.000	74	1.393	% 25,91	267	% 19,15	% 2,33
<1.001	95	1.642	% 29,86	460	% 28,01	% 2,26
EAE BATEZ BESTE	240	1.424	% 30,99	213	% 14,97	% 2,56



Ekitaldiko finantza karga ratioak interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzeko erabili behar den sarrera arrunten ehunekoa adierazten du. 2019ko ekitaldian, batez bestekoa % 2,56 izan zen.

Langile gastuen indizea adierazleak neurtzen du entitateko langile gastuek zein proportziotan xurgatzen dituzten eragiketa arruntetako eskubide aitortuak. 2019ko ekitaldirako, adierazle honen emaitza toki entitateen multzo osorako % 30,99 izan zen.

2019ko ekitaldian udalen biztanleko gastua 1.424 euro izan zen eta horietatik inbertsioetarako batez beste biztanleko 213 euro eman ziren.

Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

Aurrezki gordin ez finantzarioak erakusten du finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala. Aurrezki gordinak edozein modutara finantza kargaren pareko edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke karga honen ordainketari aurre egin eta ez luke inbertsioetarako auto-finantzaketarik izango.

Aurrezki garbiak islatzen du finantza kargaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordin ez finantzarioaren zatia. Udalak berezko baliabideekin inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du eta positiboa behar du izan, ez daitezen kapitalezko diru-sarrerak gastu arruntak finantzatzeko balia.

Euroak/biztanleko				
GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORD. EZ FINANTZ. BIZTANLEKO	AURREZKI GARB. BIZTANLEKO	SUPERAB./ DEFIZITA BIZTANLEKO
ARABA				
>50.000.....	1	112	37	33
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	199	195	160
5.001-10.000.....	1	415	280	28
1.001-5.000.....	15	301	288	261
<1.001.....	29	304	277	227
ARABA BATEZ BESTE	48	149	87	72
BIZKAIA				
>50.000.....	3	262	252	111
20.001-50.000.....	8	193	160	173
10.001-20.000.....	9	233	210	199
5.001-10.000.....	13	196	171	173
1.001-5.000.....	39	297	268	237
<1.001.....	38	391	371	238
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	242	222	154
GIPUZKOA				
>50.000.....	2	243	171	405
20.001-50.000.....	5	247	212	223
10.001-20.000.....	14	292	258	275
5.001-10.000.....	13	253	212	209
1.001-5.000.....	20	288	236	166
<1.001.....	28	507	436	600
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	265	215	301
EAE				
>50.000.....	6	221	180	163
20.001-50.000.....	13	211	177	189
10.001-20.000.....	25	262	235	237
5.001-10.000.....	27	228	193	186
1.001-5.000.....	74	295	263	222
<1.001.....	95	392	357	322
EAE BATEZ BESTE	240	235	199	190

Aztergai izan dugun ekitaldian, 3 udalek aurrezki gordin negatiboa dute. Aurrezki gordina edo garbia negatiboa duten udal horietan zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 3 udal horien autofinantzaketarako gaitasuna zero da.

Aitortutako eskubide garbiei dagokienez, batez besteko indizeak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORD. INDIZEA	AURREZKI GORDIN EZ-FINANT. INDIZEA
ARABA			
>50.000	1	% 7,72	% 7,90
20.001-50.000	-	-	-
10.001-20.000	2	% 15,29	% 15,29
5.001-10.000	1	% 26,01	% 29,80
1.001-5.000	15	% 22,69	% 22,73
<1.001	29	% 22,35	% 22,60
ARABA BATEZ BESTE	48	% 10,44	% 10,65
BIZKAIA			
>50.000	3	% 17,28	% 17,30
20.001-50.000	8	% 15,57	% 15,66
10.001-20.000	9	% 17,86	% 18,85
5.001-10.000	13	% 15,48	% 15,54
1.001-5.000	39	% 20,31	% 20,63
<1.001	38	% 24,40	% 24,55
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 17,23	% 17,40
GIPUZKOA			
>50.000	2	% 15,43	% 15,69
20.001-50.000	5	% 17,80	% 17,88
10.001-20.000	14	% 20,83	% 20,91
5.001-10.000	13	% 17,92	% 18,00
1.001-5.000	20	% 21,60	% 21,70
<1.001	28	% 29,87	% 29,97
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 18,15	% 18,30
EAE			
>50.000	6	% 14,60	% 14,71
20.001-50.000	13	% 16,35	% 16,44
10.001-20.000	25	% 19,35	% 19,74
5.001-10.000	27	% 16,97	% 17,15
1.001-5.000	74	% 21,04	% 21,26
<1.001	95	% 25,29	% 25,45
EAE BATEZ BESTE	240	% 16,53	% 16,70

Hona hemen zalantzako kobragarritasuneko saldoetarako zuzkidurak egiten duen ehunekoa kobratzeko dauden zordunen gainean:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GERUZA	UDAL KOP.	ZALANTZ.KOBRAG. ZORDUNEN INDIZEA
ARABA		
>50.000	1	% 14,33
20.001-50.000	-	-
10.001-20.000	2	% 37,08
5.001-10.000	1	% 40,34
1.001-5.000	15	% 42,69
<1.001	29	% 37,15
ARABA BATEZ BESTE	48	% 21,46
BIZKAIA		
>50.000	3	% 61,46
20.001-50.000	8	% 63,05
10.001-20.000	9	% 37,81
5.001-10.000	13	% 64,47
1.001-5.000	39	% 50,26
<1.001	38	% 34,32
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 57,18
GIPUZKOA		
>50.000	2	% 15,50
20.001-50.000	5	% 15,64
10.001-20.000	14	% 30,71
5.001-10.000	13	% 18,47
1.001-5.000	20	% 21,40
<1.001	28	% 5,06
GIPUZKOA BATEZ BESTE	82	% 18,93
EAE		
>50.000	6	% 32,35
20.001-50.000	13	% 40,09
10.001-20.000	25	% 33,95
5.001-10.000	27	% 37,65
1.001-5.000	74	% 41,78
<1.001	95	% 24,86
EAE BATEZ BESTE	240	% 34,61



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ekitaldi itxietako aurrekontuen adierazleak

GERUZA	UDAL KOP.	EKITALDI ITXIETAN EGINDAKO KOBR.	EKITALDI ITXIETAN EGINDAKO ORDAINK.
ARABA			
>50.000.....	1	% 62,26	% 99,95
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 36,09	% 86,18
5.001-10.000.....	1	% 52,49	% 94,57
1.001-5.000.....	15	% 61,77	% 93,30
<1.001.....	29	% 47,48	% 84,11
ARABA BATEZ BESTE	48	% 58,63	% 97,02
BIZKAIA			
>50.000.....	3	% 39,71	% 99,88
20.001-50.000.....	8	% 30,24	% 98,44
10.001-20.000.....	9	% 28,98	% 97,75
5.001-10.000.....	13	% 29,52	% 94,77
1.001-5.000.....	39	% 35,28	% 88,78
<1.001.....	38	% 49,64	% 86,25
BIZKAIA BATEZ BESTE	110	% 35,60	% 97,80
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 52,32	% 96,65
20.001-50.000.....	5	% 66,52	% 99,61
